

patrizio
urkizu sarasua

ZEREN AZKEN FINEAN

IRUN
HIRIA
LITERATUR
SARIEN
BILDUMA



euskal olerkiak

CAP

AURREZKI KUTXA, IRUN 1984

HASTEAN...

Hastean Jainkoak gauzak kreatu
omen zituen, lur eta zeruak
ordurarte forma gabe zirenak
huts deusetarik zituen moldatu.

Ilunbe gauak zituen urratu
sorturik ortzadar polikromoak,
hobi goietan margo zurubiak,
horrela argia zuen asmatu.

Uren bildumak zituen ezarri
lehorrak agertuz hedaduretan,
eguzkiaz belarrak ziren hazi.

Animaliak alde guztietan,
eta gizona zuen jarri nausi
arrain, hegazti eta piztietan.

APOKALIPSITIK HARTUA

Eta ziren hiriko harresiak harrieder landuz jantziak.

Lehena zen jaspez,

Bigarrena zafirez,

Hirugarrena kalzedonez,

Laugarrena esmeraldez,

Bostgarrena sardonikez,

Seigarrena sardoinez,

Zazpigarrena krisolitez,

Zortzigarrena berilez,

Bederatzigarrena topazez,

Hamargarrena krisoprabez,

Hamaikagarrena jazintez,

Hamabigarrena amatistez,

Eta hamabi atek ziren, hamabi perla, bat bederatan bat:

Eta ateetarik bat bedera zen perla bedera.

Eta hiriko plaza zen urre purez. beira guzizko argia bezala,,

Eta zerurean pizti deabru hegaldun bat iragan zen,

Eta bonba bat jaurtikirik oro hauts, huts, bilakatu zen.

OI, PARADISU GALDU EDER HURA!

Adanen saihetsetik Eba omen
zuen atera, bakardaderikan
ez zezan paira. Baina Ebarengan
suge tzarraren pozoina sartu zen,
jan zezan gutizia sortu zuen,
zientzi biziaren arbolatikan,
jakite fruitu debekaturikan,
Adanek eta Ebak proba zuten.
Eta paradisuko baratzetik
desitxaropenezko desertura,
Edengo paraje xarmantetatik
basamortuko hauts biluts mundura
ezpataz jaurtiki zituelarik.
Oi, paradisu galdu eder hura!

UHOLDEA

Eta etorri izan zen uholdea berrogei egunez...

Etorkia VII, 17.

Eta zeruko atea ideki ziren
ximistez, ihurtzuriz, babazuzaz,
berrogei egun eta berrogei gauez.
Eta urak handitu, altxatu, goratu ziren
etxeak, arkak, berebilak
flotatzen jarri zirelarik uren gainean.
Eta urak xoil hagitz bortiztu ziren
ontziak hondoratzen,
zubiak erdibitzen,
mendirik haltoenak estaltzen zituela.
Eta lurraren gainean higitzen ziren
haragiki guztiak,
hegaztinak, abrebestiak, harrastakiak
eta pertsonak oro hil ziren,
helikopterotara igo ez ziren beste guztiak.

BABEL

Eta uholdeak iragan zirenean

bildu ziren Jendeak

BABEL dorre bat egiteko asmotan

eta betirako zeruko atea herts zitezen.

Eta eternalak esan zuen:

horra,

badakiat poblua dela zoriontsua,

hizkuntza batez elkar aditzen direla,

euskaraz diharduela,

harriz-harri dorre bat eneganatzeko dagiela,

eta ene soro-landen belarrak zanpatzera datorrela,

ea, bada, aski da!

Eta memento hartatik

lur guzien gainean iendeak barreiaturik,

dituzte hizkuntzak nahasirik,

elkarrekin ezin ulerturik.

SUGEA

Sugea,
oreina,
zezena,
harri handiaren aldarean
eskaintzen dizuet
bizitza eta heriotzaren
pozoin segetua,
zuen nakarrezko,
kaobazko.
urdinarrezko
lepoetarik isuria,
ezin minaren osagarria,
euskaldunentzat dadila
odol-pozoin
maitagarria.

ANET HRAU-TEN NETERU

Egipto, XVIII. dinastia

Heriotzaren liburutik

Jainko dotore,

zuei ohore.

Zuzena eta egia

duzuen jauregia.

ANNU-ren baitan,

HORUS-en aitzinean,

ene barnea elikatzen dudan artean,

aska nazazue

BABY-rengandik

epaituren nauzuen egun handian,

ANET HRAU-TEN NETERU.

VIPARĪTA RĀTĪ

«anderea gainean gizona azpian»

Amarûka, 650-850 inguruan, sanskritotik

Poetak dio:

Maitearen begitartea,

begitarte eder hori

beti gorde diezadanala,

plazeraren mementoan,

viparita râti,

ile sorta nahasirik,

eraztunak dardarez,

kopetako borobila

izerdi tanto finez

ia oro deseginik,

begiaren zurbila,

amodio jokoak amaitzean

zertarako dei egin

Vishnu, Shiva, Brahma

eta beste jainkoei?

ATRESSI COM PERSAVAUS

Pertzebalen gisara

nenbilen pentsakor,

hark etzekielarik

zalantzan, dudakor,

zertarako zituen

hainbeste Graal altxor,

nik, malenkoniati,

hainbeste desamor.

LO EZIN EGINIK

Logure xoriñoak

zuen erabaki

begien ñiñietan

ezartzea kabi.

Izutu zen, ordea,

lo ezin eginik,

betileen sarea

baitzuen ikusi.

KÜNIGUNT

Der Tannhäuser

XII. m.

Künigunt zoriontsu,
ematerik banizu
ahoa mila musu,
nintzateke sendatu,
ene bihotz minez,
holako amorez
egin zenidanez
bihotza urratu.

Baina, alde egin duzu!

Heiâ nu he!

Biolinaren haria

hautsi berri duzu!

HERIOTZAREN AHAPALDIAK

Jean de Sponde (1517-1595)

Hil behar baita, ditu bizi hantustek
sofrituko heriotzaren haserreak,
eguzkiak piztuko eguneko loreak,
denborak lehertuko bisikon haizeak.

Ezkosuziak botako oi kar ketsuak,
bere izekia itzaliko berde ezkoak,
mahai olioak ilunduko koloreak,
hegi afartsuak hautsiko bertan olatuak.

Ene so aitzin argi dizdirak pasako,
zeruan burrunban ihurtziriak hautsiko,
han hemen, nonahi, ekaitza lehertuko.

Ikusi dut elurra urtzen, urak agortzen,
lehoi errabiati hau indar ahitzen,
hil behar baita, bizi, bizi gaitezen.

SILS-MARIA

Friedrich Nietzsche

Hemen eserita, zain eta zain, -deus ezerrez,
Ona eta Gaitzatik at, batzutan eguzkia
dastatuz, bestetan itzala, jokoak oro,
itsasoak oro, eguerdiak oro, mugagabeko astiak oro.
Eta, derrepente, Adiskide! bat bitan banatu zen
eta Zarathustra ene ondotik iragan zen...

ISPILU HERDOILDU

Ispilu herdoildu
paradisu ezinaren
hoztasun borobilean
jokatzen has,
ispiluko begiak
begien dirdir hotzak
ikusmira,
itaun,
ihardets,
higuin,
kopulak bailira,
eta
biderketaren,
hire izlaren
bildur izuaz
hitz total-motelez
mintzadi.

ISPILU HAUTSI

Hondartzaren

ispilu hautsi,

aldakorraren izlan,

aroen siesta etengabeak

isurtze patxarosoan,

uhinen zilar afarra

orrumarruka

hausten dik,

bertan

desitxaropenezko

zeru pitzatu bat,

eremu kristalezkoa

ñabartzen delarik,

eta hiri,

bakardadeak josirikako

armiarma sarean,

sentimenduen bonbila transparentean

zigilu busti bat

eransten dik.

ORDU GRIS

Ordu gris,
hondo eta mugagabeko
arratsalde sirimiritsuan
amiltzen hasi haiz,
eta
aingura
bota duk
fondora.
Hire hiletaren biolinen notak
zultatzen doaz
tristuraz,
malenkoniaz,
hire leize-amildegia,
baina,
aingurak —ongi dakik—
ez dik fondorik
sekulan
joko.

KONTENPLAZIOAN

Guari so,
hodei tartetik
dagerren
tunel izarztatuaren
kontenplazioan,
Santiagoko bide
afarren
hauts zurian
amildurik,
zure narru beltzarana,
su sensuala,
dardar epela,
esperantza hautsia,
paradisu eragotzia,
eneganatu nahiz,
gau atejoka
zentsuratu batetan
murgiltzen nauzu,
guari so.

DEI HAKIDAN

Gauero,
amodio ero,
zorabio tematsu honek
jota,
gauero,
loak ezin harturik,
ideiak oro
fossilizatzen direnean,
plazeraren haizto kamutsa
haragiak ezin ebakirik
dabilenean,
gauero,
esperantza zoro,
absoluto ero hori
hireganatu nahirik
habilenean,
dei hakidan.

MEMENTORO

Mementoro,
egunoro eta gauoro,
ilusioen miraila,
ametsen tegia,
hausten,
husten dihoakidanean,
herri minez,
maite minez
ezin bizirik,
bakardadearen kutxan
sarturik,
malenkoniaren garratzak
harturik,
ezerezaren hutsean
deseginik,
ez orratzik eta ez lemarik,
arruta galduetarik,
nihoakizu
itsasontzi bakarti
bainintzan.

BURU ERROTA

Buru errota,
barne muintegi,
ganbara zoro honi
etengabe
marmara dario.
Intsekto hegalarien
zurrunbiloa,
kilkir beltzen
leloa,
kikarra aspergarrien
matraka,
ehiera zaharraren
negarra,
orgagurpil hozkigilearen
garrasia bailitzan,
baina,
bihotz izoztu honek
ez dio egiten
kasurik batere.

EURI HEZE

Euri heze,
sirimiri samurrak
xaroleztaturiko karreteran barrena,
gauerdian,
neonezko argipean,
gabardinaren solapa gora,
hiria lo datzanean,
amerikar filme
ikusiberriaren
azken heroea antzo,
suspenseak hatzamanik,
urduri
nihoakizu,
ene bizitzaren heroina
ukitzeko,
dastatzeko,
lortzeko,
muga, hesi,
gauza guztien gainetik
pasatzeko prest.

HEGO HAIZE EPELAK

Hego haize epelak
ene herriko hoztasuna
epel dezake.

Hego haize goiztarrak
ene herriko minbizia
senda dezake.

Hego haize nabarrak
ene herriko ontasuna
handi dezake.

Hego haize sarkorrak
ene bihotzeko maiteminak
goxa ditzake.

Hego haize epelak...

ELURRA URTUZ

Elurra urtuz dator

primadera.

Orhi menditik behera

isurkiak daramatzate

ur sobera,

Bidelagun dakarte

xoriñoen kantu

alegera.

Belardi berdetan

artaldeen kontzertu

xurikera.

Halako parajetan,

ene!

Zein natzaizun

sentibera!

KOSTABURU

Kostaburuko hondartzan

natza,

izarren izara

zuriskapean,

urrezko hobi

izarniatuan.

Goian,

ilazki bi ageri,

bat zoargi,

bestea zurbil,

eta,

erromes honen

bihotz putzuan,

batzutan hits,

bestetan dizdiz,

kulunkatzen

dabilzkit.

NESKATXEN UHARTEA

Errebista ilustratuetan
palmerondotan etzanik
dagertzan
adats urrezko neskutsak,
haize zurrunbiloaren
ziztuarekin bateginik,
aldamenean
gitarrajole beltza,
ile barrazkiloak dantzari
dituelarik,
eta kirru arrosartean,
itsaso esmeraldapean,
eguzkia sartzen
begiratzean,
sentimendu deszifra ezinen
kariziapean,
begia hetaz hautaturik,
neskatxen uharte
amesten uzten naute.

HOZKI

Hozki dagidate gauzek,

hozki

gauzatto zahar, berri, tipi, ñimiñoek,

hozki,

hire begien ispilu ilunabarrean

dagerren

ene erretrato xume, itsusia,

hozki

soro zoroetarik,

arruta desarruntetarik

nihoakizula ikusteak,

hozki

gardenagotzen ari diren

arrosa eta liliek,

hozki

hire barne kutxaren liluraz soilik

bizi haizela jakiteak,

pens.

eta

hozki.

DERRIGORREZ

Gaez,

kalez-kale,

hits,

malenkoniati,

amore-zun

nindoakizun,

arno kondar garratzak

bakarrik edirenak

truk.

Eta desertu huts

bilakatuz

hautsi nintzen

negarrez,

derrigorrez

ETA ORAIN...

Hurtzaroan

zenbat amets goxo, balaku, joko eder

amaren magalean,

aitaren babesean,

asaba zaharren baratzean...

Gaztaroan

zenbat jenio txar, hasarre, ihesezinbehar,

amaren baitatik,

aitaren kontra,

asaba zaharren legearen aurka...

Eta orain....

JEHANNE D'ARBIDE

Joanak diren azken garaietan

Ez dut inoiz ikusi ahal

Hain neskati noble, hain leial,

Arbasoen alaba nobleetan

Nere amets xarmant goxoenetan,

Nola Joana, ene izar zabal,

Ederrenen artean ez du itzal,

Denen gainetik eguzki benetan.

Arbideren alaben izar goren

Royal manuak baino laketago

Bozkario handiz ditut betetzen

Ire gutizi orotan bainago

Deklaratuz esklabo, eta arren

Erraidazu nauzula kuttunago.

ZALGIZERI

Zalgizen ohorez hamalauduna
izkribatzeko baitidate esan
hitza hitzakin kate eginikan
hementxe doakizu laukoduna.

Euskal Herria zaiola zorduna,
Xuberoaz Pabeko gorteetan
jatorki jo baitu lan guztietan
haren premiez zenez jakituna.

Gora dezagun euskaldun poeta,
ez dadin izan inoiz ahantzia,
zor diogula erramu boneta.

Hainbat bertutek behar du loria,
Gora dezake Zalgizek kopeta
zaindu duelako Euskal Herria.

PARISE

Pariseko esnak barretan arima
handiak elgarrekin solasetan,
saint micheletik zehar berriketan,
deusezturik zenbaiten katexima.

Nola gizona dagoen bitima,
hainbat pairaezin injustizietan,
nola herria dagoen penetan,
ezin sofriturik hainbat krima.

Bide berrietan fede harturik
badatoz ikasiak gauzatzera,
lege berrietan ongi jantzirik

gure mendi gailurrak apaintzera.

Baina, herria xedez aldaturik
gizona negarrez doa urtzera.

LILI ARRARO BATI

Oraingoan poema bat
nahi nioke jarri
ene gogoan daukadan
lili arraro bati.

Beraz bainaiz horrenbeste,
horrenbeste onetsi,
diodala ene oro
bihotzetik eskaini.

Izena lorea du eta
ezin inoiz ahantzi,
margarita aipaturik
ez natzaio gezurti.

Lepoa nakar xuria,
dizdiraka dirudi,
ezpain krabelin gorriak
benetan dastagarri.

Bere begi ispiluak
nahi nituzke irentsi,
bere putzu ilunean
betirako ahantzi.

MUNDU HONETAN

Mundu honetan badira gauzak
benetan xarmangarriak,
gaur gaueko afari ederra,
ta zure begi pariak.

Eztakit nola bizi naizen ta
egunak dira hain luziak,
esperantzarik eztunarentzat
dira benetan tristiak.

Negu hontako gau beltz-beltzetan
joanak dira liliak,
jilofreia guztiz ederrak,
neretzat daude itzaliak.

Bazoazela esaten duzu
ia negarrez begiak,
ea laister elgartzen gaituen
beste azturu hobiak.

Ene xoriño maitagarria
larrosatxo zoro hori,
hego haizeak harama eta,
ea laister bihur adi!

Era berdinez ibil ninteke,
oso gustora ere ni,
baina inoiz eztut aurkituko
!non hi bezalakorik.

Parte zaharreko kaletan zehar
itxaropenak narama,
sirimiriek salmo arinak
arintzen dit ene zama.

San Vicenteko organoaren
oihartzun hotsaren gama!
Salmoen uhin etengabeak
udazken hauxe darama.

URTZI-THORREN KALENDERRA BERRIA

HOROSKOPOA

Zorionaren atzetik bahabil
aurten ere izaten al haiz abil!

URTARRILA

Mila bederatzirehun
larogeita urtetan
sartu naiz elurrekin
euskal herrietan.

OTSAILA

Ideial hoberenak
dakust giltzapean
askatuko nituzke
ihauterietan.

MARTXOA

Garizuma bustia
eta lainoetan
kontuz, ibili, jaunak
zerbait zinatzean.

APIRILA

Lili xuri berriak
dastatu lurrean
udaberriarekin
berriro sortzean.

MAIATZA

Eguzkiarekin
lorak goratzean,
ahantz tristurak eta
alaitu gaitean.

EKAINA

Neure oinak dabiltzat
hego iparrean,
suaz batuko ditut
San Juan bezperean.

UZTAILA

Gaztain aroa da eta
berotan sartzean,
ikusiko zaituet
Maddalen festetan.

ABUZZTUA

Kanporatzea baino
hobe da hitz bitan
igerika ibili
euskaldun kostetan.

IRAILA

Bizi baldin bazara,
berriro ostean,
elkar izango gara
Santakrutz festetan.

URRILA

Janedan nahiez gero
tripak hustutzean,
bete daitezke bapo
gure tabernetan.

AZAROA

Lohiz baterikako
eztrata ertzean
jaioko da lore bat
goiz argi aldean.

ABENDUA

Anaia anaiakin

lot elkar lanean,

eta bizi gaitezen

guztiok **BAKEAN**.

SAGARDO'EGIAN

Aurtengo sagardoak
ugari du bitza,
hori nabari zaio
kentzen bayok zitza.

Hain mingotsa ote da
euskaldun bizitza?
Hainbeste penetatik
jaunak libra gaitza.

Zahagi zaharreko
euskaldun mahatsa
urtero odol berrituz
fruituak dematza.

Otso arrotz etsaiek
ken nahirik hatsa,
baina odolik bada,
bada esperantza.

MARIPOSARI

Kanpandorrear
dantzan bi txakur
dantzan bi txakur
mariposekin.

Teilatupean
dantzan bi katu
dantzan bi katu
sagutxoekin.

Ganbarenean
dantzan bi gazte
dantzan bi gazte
batabestekin.

Pinpinpausekin
gerrate askean
gerrate askean
biok ametsean.

Mitxeletekin
elgarren bila
elgarren bila
biok jolasean.

Mariposekin
iratze artean
iratze artean
ah, ze bi musean!

ARRANTZALEARI

Olatu bizkarrean
txalupa batean,
marinela kulunkan
ilunabarrean.

Etengabe lanean
zeru grisen pean,
goibelari begira
errezo artean.

Arrainen esperantzan
espero luzean,
noiz trabatuko ote
amuen tartean.

Saltoka noizpehinka
saski barrenean,
arraintxu batzu dira
hil zori tristean.

Karramarru biziak
eta aparejuak,
dabiltz korapilatuz,
atarramentuak!

Txiutxiuka kaioak,
non arrainkumeak
ote diren, bilaka
egiteko festak.

Beren moko zorrotzak
egiteko festak,
zilar afarretan
xuritzuz harkaitzak.

Ezpain puntak josiak
datozte lupiak,
isatsa zaplartzak
hautsirik ur ertzak.

Agurea patxaran
ilunabarrean
kuarteroia erreaz,
ezpain kantoiean.

Trankil mendipean
ilargi betean,
etxeratzeko zain
azkena hartzean.

Ezta ezeren bildur
baina errespetuz,
itsaso zero lurra
ohoratzen ditu.

Segurtasuna baitu
orain bezalatsu,
heriok dituela
ezkilak oihartzun.

GORA TRINTXERPE

Gora Trintxerpe eta

arriba la teta

Gora ederrena den

gure estarleta.

Gora Marilin eta

barrena ardo beltza,

kanpora arrotzak

kontra baitabiltza.

Gora Realta eta

Gora Athletika.

Eztagola munduan

horrelakorikan.

Gora batasuna eta

gora lege zaharra,

gora euskaldunak eta

gora ardo nafarra.

AKELARRE

Larunbata akelarren
sorginak dira batzarren.

Larunbata akelarren
sorginak dira batzarren.

Erratza makilaz lanbro gainetik
parada dute Larrunen,
bide erdia Beraunen,
irten unea Londresen.

Ilazkia bete da ta,
hemen daukagun zarata,

Ilazkia bete da ta,
hemen daukagun zarata.

Atso zahar bigote bizardunak
arno sobera edanda,
sortu duten zalaparta,
dantzan muturrez topata.

Herri festak direnian
sorginak oro batian,

Herri festak direnian
sorginak oro batian.

Sataneriakin akort dabiltz
gau belarrak edanian,
tronpetaren akordian,
amodiozko dantzian.

Asto lasterrak izanik
prozesio ederrenik.

Asto lasterrak izanik
prozesio ederrenik.

Aurten ere ihauterietan
arrantza ez dabilenik,
ez daduka ez kemenik,
ez behar den zoramenik.

Zakurrak dabiltz zaungaka
katuak berriz marruka.

Zakurrak dabiltz zaungaka
katuak berriz marruka.

Ilazkiarekin enparantzan

idiak dantzan orruka,
ahuntzak saltoz txistuka,
eta azerha keinuka.

Hauxe bai dela zoramena,
boterea belarrena.

Hauxe bai dela zoramena,
boterea belarrena.

Belarrak dira bedeinkatuak
akerrarena baimena,
aker oker mokorrena,
adar bihur ederrena.

Aker beltzaren zuluia,
hori bai dela tutua!

Aker beltzaren zuluia,
hori bai dela tutua!

Oilar lumaz apaindurik dira
agureen tinko pitua,
buruz behera zutitua,
sartzeko prest gelditua.

Jende ororen zakilak
eztirudite ez hilak.

Jende ororen zakilak
eztirudite ez hilak.

Salto eta brinko baitabiltza
bilutsik atso guztiak,
salto eta brinko makilak
hoiek bai dira abilak!

Doaiak ditu belarrak,
baita ere arno zaharrak.

Doaiak ditu belarrak,
baita ere arno zaharrak.

Ehun bertutetako kamamila
adina arno nafarrak
sendatzen ditu kaskarrak,
arimetako langarrak.

Neskatzak direla birjin
ez diat eginen zin.

Neskatzak direla birjin
ez diat eginen zin.

Mutilak ez dira fraide,

beren.zakil xutarekin,
hartu nahi dute atsegin,
loak harrarte geldi ezin.

Besta amaitzera baitoa,
nausi egin zaigu loa.

Besta amaitzera baitoa,
nausi egin zaigu loa.

Eta hurrengo akelarretan
ekarri fermo dardoa,
berria gauza seguroa
marizikinez du joa.

Politiko anitz bada
egiten mila asanblada.

Politiko anitz bada
egiten mila asanblada.

Datorren urtez akelarretan,
oi ezpalitz arlotada,
debeka nahiz zirikada,
salba dezagun parada.

Ez duk hamahiru.

KANPANDORREA

Kanpandorrearen tristurek

naramate,

brontzearen dantza ilunek

jotzen dute,

betiko hasperen eztiak

nadukate.

Kanpandorrean dabil dantzan

mariposa,

hegal eskuin margoduna

da arrosa,

hegal ezker kanbiakorra

da panposa.

Kanpandorreko mixeletak

elkarreki,

egiten dituzte joko festak

hain ederki,

ai, hainbat, ene maiteak,

nik banekil

Kanpandorreko hil ezkila

kolpaturik,

badoa garrasi isila

ihaturik,

panpos ahantziaren bila

herraturik.

ETERNITATERAKO

Eternitaterako

ene hilobia

ez dut nik desiratzen

eder jauregia.

Ezta ere egoitza

ikaragarria,

baizik kanposainduko

zulotxo txikia,

bi metro luzia,

kutxa sartokia,

gauza xit sinplia,

bakezko tegia,

gustora dastatzeko,

Oh, sirimiria!

ZEREN AZKEN FINEAN

Zeren azken finean,

hil eta herio,

oro izanen gaituk

haustegi kario.

Norbaiten memorian

bagenu balio

izan genezakeen

gehiago desio?

Hortaz ez naiz fio

izatez alibio,

dadukat jenio,

jartzean serio.

Eta, besterik gabe,

adiskide, adio!

AURKIBIDEA

Hastean	1
Apokalipsitik hartua	2
Oi, paradisu galdu eder hura!	3
Uholdea.....	4
Babel	5
Sugea	6
Anet hrau-ten neteru.....	7
Viparita rati.....	8
Atressi com persavaus	9
Lo ezin eginik.....	10
Künigunt.....	11
Heriotzaren ahapaldiak	12
Sils-Maria	13
Ispilu herdoildu.....	14
Ispilu hautsi	15
Ordu gris.....	16
Kontenplazioan	17
Dei hakidan	18
Mementoro.....	19
Buru errota	20
Euri heze.....	21
Hego haize epelak.....	22
Elurra urtuz	23
Kostaburu.....	24
Neskatxen uhartea.....	25
Hozki.....	26
Derrigorrez.....	27
Eta orain	28
Jehanne d'Arbide	29
Zalgizeri	30
Parise.....	31
Lili arraro bati	32
Mundu honetan	33
Urtzi-Thorren kalenderra berria	35
Sagardotegian	39
Mariposari.....	40
Arrantzaleari.....	42
Gora Trintxerpe.....	45
Akelarre.....	46
Kanpandorrea	51
Eternitaterako	53
Zeren azken finean.....	54